

Perutxoren su kaxea

Sabin BARRUETABEÑA

—Abenduko San Juanetan egingo joat neure morroitzako lehenengo urtea. Lau egun baino ez dituk falta eta bapo najagok. Bien bitartean etxera osterea gainera. Jakina ba! Gabonak dituk eta ez dok itxurazko morroia Gabonetan gurasoenera joan barik gelditzea...

—Hazi be egin nok. Loditu, loditu ez askorik. Aitak orain be «hemen dator gure elbitza» esango jok, baina zertarako behar jituat nik Etxekoneko Txomin Potoloren gantzak, ibili be egin ezinik ibilteko. Udabarria datorrenean txori habiten abiatu eta berehala arnasa estuka zelan gelditzen dok ba bera. Jan bai, jango leukek idia adar eta guzti be, baina... ibilteko orduan hamar arroako harritzarra baino patalago. Beretzat bere kilook! Gainera, aita bera be zer ba? Bera be ez dok horrenbesteko pago gerria.

Perutxo gelako leihotik begira egoan, harantz norabaitera edo. Etorkizunari begira ziur asko, gauza konkreturik ez eban begietan baina. Halako baten, mendi hegira begira begira gelditu zan...



—Polita dok gero Gabon bezperetan honelako eguraldi ederra eukitea. Eguzki albainuak zuhaitz adarretan kateaturik dagozan artaldeak zirudiek. Beno ez, ardiak balitzozak zuriak litzakezak eta horreek Aurtenetxeko Edurneren uleak baino horiangoak zirudiek... Horixe, ardi rubioak edo izan behar!... Eta bere buruaz barrezka hasi zan Perutxo. —Ardi rubioak eta zelango artaldea behar litzateken horrelango matasea egiteko. Hori dana artulea balitzok, burdikadatan bai, burdikadatan! Ez neukek horixe dana garbitzen jardun beharrik gura.

Ugazaba-etxekandreak herrira joanak ziran. Feria eguna be bazala eta, ganaduak ze balio egiten eben jakitea be ona zala eta, ea ba eurak be Gabon ostetxoan kortako zekor eder bi kendu beharko zituela eta erosleren batekin aurretiaz berba egitekotan joan zan Martin ugazaba. Gabonetarako zerbait erosi eta horrelokoak egitera Katalin etxekandrea.

Etxea jaso eta ganadu jateko apurtxo bat gehiago ekarri eta eurak etxeratzen ziranerako egurrak ebagi eta sua isiotuta eukiteko agindu eutsien. Berez be beharra ugari ataratekoa izan, eta berak uste baino arinago egin zituan harrikoak, ganaduei jaten emoteak, egurra txikitu, eskaratza garbitu, ura ekarri, astoak inguratzeak. Gero arbi orria egiten ekin eutsan. Besada on mordoxkea egin eban, zalantzan egon zan lepoz etxera eroan ala idiak buztartu. Hareek be zerbaitetarako ba egozala eta idiak buztartu, burkada on bat egin eta etxera eroan eban. Aska aurrean hustu eta irribarretxoa agertu zan Perutxoren ezpanetan.

—Ugazabak eta ez joek usteko honenbesterik egingo nebanik eta sekulako arinen egin be. Zer ba? Hamalau urte ez dituk gero edozelango sasoia!

Buztarrian erabili zituan idiei isilpean zaia eta baba apur bat emon, behiei isilik egon eitezan bedar ondu apur bat eta kitto!


Orduantxe gogoratu jakon sua be isiotu egin behar ebalá ugazaba-etxekandreak etorri aurretik. Ez jakon zail be egin. Oraindino sutan egozan mukurrak hurreratu, zarba mehe batzuk zati zati egin eta ganean pilatu, ozpal batzuk gaineratu, putz eta putz egin eta hara su galanta. Astia be baeukala eta patata batzuk be zuritu zituan. Hortik aurrerakoa etxekandrearen zeregina izango zan.

Horrek danok eginda gero joan zan gelako leihotik eguraldiari begitzera. Praketan kabitzeko baino be pozago egoan. Esan eutsien dana eta gehiago eginda eukan eta ugazaba-etxekandreak han urrunean etorzan, ordu lauren bat edo gehiago behar eben etxeratzeko.

Bere amesetatik urten ebanean, arineketan joan zan kortako arazoak aurreratzera. Bere buruan eta irudimeanean baino agiri ez zan norbaitekin zeinek arinago ekin eutsan ganaduei azpiak garbitu, txarrantxeaz haundi haundienak kendu eta azpigarri barria botaten.

Mandoaren perra hotsa eta etxekandrearen so! zolia entzun zituanean atarira urten eban. Ez egoan egindakoa isilik eukiteko. Jakin eiela berak bakarrik egin eban guztia.

—Burkada bat arbi orri ekarri dot, astoak etxe ingurura ekarri ditut, harrikoa eginda eta sukaldea garbituta



dagoz, patatak be zuritu ditut, iturriko ura be ekarrita dago, egurra be gaurko eta biharko lain edo txikituta dago, ganaduen azpiak garbitu eta azpigarri barria botata, sua isiotuta... Arratsaldean Prakerre eskekoa etorri da eta zeuek egiten dozuen lez, ogi zati bat eta gaztai zati bat emon deutsadaz, baina ogia, ez dot hartu geuk orain jaten dihardugunetik, piskat gogorturik dagoana eta itzi zenduenetik baino. Hobeto esan, orduan gelditu zan atal osoa emon deutsat. Gose bada jango dau kontizu, berak pozik hartu dau behintzat.

—Ederto, ederto!, inotsan etxekandreak. Oso ondo egin dozu dana eta geu be portauko gara zeugaz. Zu lan-goak banan banangoak izaten dira, enkarguz eginak be gixi.

Perutxo pozarren egoan. Agindu eutsiena eta gehiago eginda be, horretara hasi balitz gehiago egiteko eran egongo zala ustetan ebilen berekautan. Baina ez eutsen horrelakorik esan ugazaba-etxekandreei.

Behe aldeko zereginak amaitu, eta afal ostean oheratu aurretik, barrero be zeru ozkarbiari begira begira egon zan apurtxo baten. Talo haundiaren itxurakoa begitandu jakon zeru zelai erdian agiri zan iretargi betea. Iretargi zuri ederra eta izarratua egoan. —Lainorik ez badator, bihar be izotz galanta izango joaguk. Beno, hemen leia esaten jeutsek baina aitzen dok. Izotza edo leia, biak be hotzak. Baina Gabon inguruan zer gura dok ba? Sasoian sasoikoa, neguan hotza eta udan beroa.

Ohe zabalean sartu eta lo gozoa egin eban. Amesetan be bai. Karmen, Begonia eta Santi neba-arrebak zer

esango ete eutsien etxeratzean. Karmen neska haundi eginda egoala entzun eban, baina bera baino txikiagoa izango zan. Lodiagoa bai, beti be biribilagoa, etxeko potolea izan zan ha ta, baina... Lau hilabete ikusi barik eroazanik ezin eban sinistu. Eguneroko arazoen artean denporea arin joan jakon.

—Je, ez nebala urterik egingo baina, beste urte bete egiteko be prest najagok ni. Itxi eidazue beste urte bete egiten esango jeutset, eta hamabost urte eginda, gizon eginda etorriko naz betirako etxera. Beno, betirako, esakerea dok hori be. Geroago beste etxeren batera joan edo berton jarraitu alogera hobea irabazten. Harek auzoko Santik hiru hilabete be ez zituala egin. Zelan egingo joazan ba harek gehiago, bera dan lango sakerrea izanik, ez eta ahuntzak solo ertzean ipinten diran eran laieari motz-motz lotuta be...

Itzartu zanerako argi hari moteltxoa sartzen jakon gelara leiho ertzeko zirrikitutik. Beste paretxo bat orduz ilun ez jarraitzearen azkuretxoa somau eban bere barruan, baina jagi egin behar eban, kortako behiak be laister hasiko ziran euren gozari eske eta.

—«Atzo arratsaldean ekarritakoa be hor jagok aska aurrean eta goizeko legea laister egingo joagu» esanaz, jagi, nagiak atarateko asti barik jantzi eta txistu joten txistu joten jatsi zan sukaldera. Ugazaba-etxekandreak aurretik zituan, baina etorri barri. Ugazaba oinetakoak jazen egoan orduantxe.

—Egunon, bioi!



—Egunon! Zelan lo egin dok ba?, bota eutsan ugazabak irribarrez.

—Ondo nik eta abiadan. Bizkorregi aukeran. Beste apurtxo batekoagaitik eutsiko neutsan nik oherari.

—Hori dok sasoia, hori! Hire sasoiak besteok be... Baina badakik, lo sendoak goiza bizkor, esaten joek eta.

—Niri bai behintzat.

—Ea ba arin arin gozaldue eizue eta ganadu gobernuak egin, gero be zereginak ditugu eta, bota eban etxekandreak.

—Badakik, Perutxo, gaur Gabon eguna dok eta bihar Natibitate. Egun haundi horretan, gurean behintzat ez dok kanpo beharrik egiten. Gaur aurreratue behar jituagu gaurko eta biharko ganadu jatekoak eta San Esteban egunekoak be aurreratzen jituagun bestean, hobeto baino ez. San Estebanez heu be etorriko haz, baina bien bitartean Katalin eta biok baino ez gaituk egongo eta.

—Ekartekoak badira ekarriko ditugu, nahiz eta izoztak geldotuta gelditu. Ez dago horren bildurrik. Etxekandreak etxeko beharrak eta guk ganadu jatekoak zeinek arrinago egin jokatu behar genduke.

—Gaurkoa ez dozue egunerokoa langoa, bota eutsan etxekandreak. Gaur besteetan lango bi edo hiru egiten bakoze hobeto baino ez. Aurreratua geure atsedenerako izango dok. Baina zenbat eta bizkorrago ekin eta gauzok arinago egingo dituzue.

Sukalde-kortakoak amaitu, idiak buztartu eta han urten eben ugazaba-morroiak arbi sailerantz zuzen.

Urte haretako lehenengo arbiak atarako zituen. Sagarondoak eta zurdai loraz zuri egozan, landetako bedarrak be zuri eta kizkor kizkor eginda, baina eguzti ederra etorren. Eguerdirako epelduko eban zerbait.

—Arbiok be ez dabe ba ohe pelik euki bart, esan eban Perutxok.

—Arbia beti be hotza dok eta honelako eguraldian hotzagoa, baina epelduko dok aska aurrean, kortako eta sukaldeko berotasunera. Eta hotzari aurpegia emoten ez bajakiaguk, berak emongo jeuskuk eta kikildu egingo gaituk.

Eta alkarri murik be gehiago esan barik, arbiak atara eta arbiak garbitu, atara eta garbitu jo ta ke ekin eutsien. Baita berandutu barik sail ederra prestatu be. Besada mordo galanta egoan hantxe burdiratzeko prest.

Geldi egonean hozturik, idiei narruko uleak be tente jarri jakezan eta burdikadea bete ondoren nagusiak abiatzen hasteko «aida!» esan eutsenean ez eben geldi egoteko asmorik. Buruak makurtu eta buztanak zerbait jasorik, berebiziko pausu garratzean abiatu ziran etxerantza.

Ostera bakoitzean zerbait gehiago atarata gelditzen jakolako, ugazaba etorten zenerako burkadea eta gehiago prestatzen eban Perutxok. Ez eukan sarritako mosu gorria, baina isilean ziharduan ekin eta ekin.

Laugarren ostereaz etxerantz abiatu zanean, ugazabak pozik emoten eban.

—Dana gaur etxera eroaterik be ez ei dok komeni. Halan jinok gure etxekandreak. Beste burkadatxo bat mol-

datu eik eta nahikoa joaguk San Estebantxu be erregeak lez emoteko. Ni heldu aurretik amaitzen badok, eskuak berotu, preminea be eukiko dok eta. Eguzki honek ez jaukak garagarrileko bero indarrrik be eta... Materiala kas-tau edo egingo jakoa, gehitu eutsan irribarrez.

Ekin ekinean burkada on batena atara eta eskuak be-rotzen hasi zan Perutxo, alkar igurtziaz eta sorbaldetan sendo joaz. Preminea be baeukan. Hatzamarrak ea ardaa kolorekoak eukazan. Eukazanik be ez eban ea sentitzen. Lehenengotan bai, lehenengotan zer zan ha hotza, baina gero arbi orria bera be epelago. Sekulo halango hotzik. Txikitxoago izan balitz ba negar egiteko be, baina laister hamalau urte egin behar zituan mutil haundiak negar egi-tea be ez zan itxurazko.

Etxe ingurutik solo ertzera begiratu ebanean, soil une ederra ikusi eban. Hotz galanta jan be bai, baina egun bi-tako ganadu jatekoak aurrezturik eukitea be ederra zan gero!

Bazkaria ondo irabazia eukien egun behintzat. Eta as-ka aurrean halango arbi piloa! Hareek danak halango izo-tzaz ataratea ez zan gero sutondoko katu epelaren zere-gina. Ugazaba-morroiak pozik mahairatu ziran.

—Etixerantza noiz abiatzeko asmoa edo daukak?

—Neuk ala? Gerotxoago edo... Zer ba?

—Ez, ez, jakitearren izan dok. Urteko soldateaz gai-nera, gaurko egunez morroiei zeozertxo emoteko ohiturea be badok eta.

—Hemendik harakoa laister egingo dot nik neuk, pa-re bat ordu edo gehienez be, baina aspaldion neure neba-

arrebak be ikusi barik daukadaz eta etxerantz abiatzeko gogotxo lez edo eginda daukat. Hemen be ondo nago, baina ha be gogoan daukat eta.

—Aitzen joat, aitzen joat. Neu be horrelako arazoe-tan ibilia nok eta bajakiat hori zer dan. Norbere oilo lu-rrak beti jaukak bere tiratxo.

Jantzi eta barrero sukalderatu zanerako eztabaida bizi baina samurrean ebilzan ugazaba-etxekandreak.

—Badakizu, Martin, ohiturea ohiturea da.

—Bai, Katalin, bai, ondo ezagutzen dot hemengo ohi-turea eta gizalegea. Neu be etxe honetara ezkondu aurre-tik urteetan morroitzan ibilia naz; ez dot hori ahazten, baina...

—Orain ez dago bainarik; bainak euren sasoiaren eta parra ta guzti gainera. Morroi tentela izan balitz, —par-katu, Perutxo, zu ez zara tentela—, ardurabagakoa izan balitz, aza burua, besterik ezean morroiaren etxean orio-tako azak euki daiezan Gabon Gabearen; baina morroia edo neskamea fina eta behargina eta esanekoa dan.

—Makailao ederra makila puntatik eskegita. Badakit nik hori eta aintzinatxotik jakin be. Mutikoa nintzanean, hamaika hamabi urte baino ez eta txori habitan hasi eta neure arazoak ahazten jatazanean, Gabonetan aza burua eta aza orriak emongo eustiezala entzunda nago ni neu be, zer uste dozu ba? Baina...

—Baina zer? Zeuk dinozu dana. Zeuk dinozu zer dan hemengo ohiturea. Eta hor daukat lehengoan erosita ma-

kailao sendo galanta gaur Perutxori emoteko ekarrita. Horixe eroango dau.

—Ez zeunstan ezertxorik be esan eta...

—Hori etxekandreen arazoa izaten da. Ez neban neure betebeharrak betetako inoren baimen beharrik.

—Nik ez deutsut baimen arazorik aitatu eta esan gura deutsudana zera da: neuk be zeozer ekarrita daukadala beroni emoteko.

—Ugazaba be isilmatuko gauzetan? Hara bestea! Andrazkoen arazoak andrazkook egin behar ditugu eta gizonezkoenok gizonezkook egin daizuezala.

—Baina nirea ez da makila puntan eroatekoa.

—Ezkutukoa orduan, ezkutukoa! Zelango lotsaria litzatekean morroi batentzat ugazabaren etxetik esku hutsik urtetea! Hori ez da gizalegea!

—Ez da makila puntan eroatekoa, baina esku hutsik be ez, horixe ez ba, eta gure Perutxo langoak gitxiago ora-indino.

—Zelan ba? Lepoan ala?

—Holan baino gauza txikiagoa da begiratu batean, haundiagoa bere zerean.

—Bai! Zereko zerean zertuta zertzeko zera izango da zure zera hori!

—Ez ba! Su kutxatxoa erosi neutsan lehengoko ferian. Kutxatxo bi erosi nituan, bata geuretzat eta bestea Perutxok etxera eroateko. Hori emon gura deusat, sua!



—Sukarria Gabon egunean morroiari zintzoa izan dala eta esker ona agertzeko! Aitaren eta Semearen... Hamai-katxo gauza entzuteko eta ikusteko be jaio ginan orduan.

Azkenean be bakeak eginik, ez zan hasarrerako eztabai-dea be eta, San Esteban egunez bariro etortekotan urten eban Perutxok ugazabaren etxetik. Gorozti makila punta baten makailao galanta eroan, bidean aurkitzen zituanen miragarri eta gaberako amak pretaurik jateko gozagarri, eta beste puntatik dindilizka su haxatxo.

—Kontxo! Egin be bai, baina portau be holantxe portau jatazak, inoan berekautan Perutxok, etxerako bideari ekinalako abiada bizian ekinaz. Beste urte beterako be pozik etorriko nok ni, aitag eta ontzat emoten badabe behintzat. Etxeko semea izan banindue be ez neban tratu ho-beagorik jasoko.

Amak eta urrunetik ikusi eben etxera etorren muti-koa. Ekin ahalean etorren etxera eta makila puntan baekarren zeozer. Luzengea emoten eban; bai, ziur be ziur makailaoa izango zan ba. Ez euren zalako, baina azkenengoz Martin eta ikusi zituenean be, argi esan eutsien hareek mutilaz pozik be pozik egozala. Indarra be hartzen joala eta finean berakatza langoxea. Agindu bat birritan emon beharrik be ez eban harek.

Nebea noiz besarkatuko egozan Karmen eta Begoña. Santi be han ebulan beretzat zerbait ekarriko ete eban ez itanduko bai itanduko.

Gerotxoago txakur zaunkea eta Perutxo atarian goizeko hotz aurpegi zurbilduaren lorratz guztiak galduta, erdi izerditan eta gorri gorri eginda.

—Hau etxekandreak emona. Badakizue, Gabonetako ohiturea. Eta bestetxo hau su kaxea, hau ugazabak emona. Hori gaur jateko eta beste hau geu berotzeko. Sua dator hemen, su modernoa, sukarrri barik egitekoa.

Sukarrri barik sua isiotzea zelan izan eitekean be, eta danak ahoa zabalik gelditu ziran. Zelakoa izango zan ba su hori? Eta sukarrri eta ardagai barik sua egitekoa zala? Et, et, et! Parte txarreko zeren bat edo ez bazan gero ha!

Su kaxatxoari alderdi guztietatik begira egozan, garretan noiz hasiko edo ete zan, baina inor be ez zan ikutzen ausartzen. Han egoan zera hori mahai gainean begiz ondo orrazturik baina inork ikutu barik.

Perutxok jantziak aldatu eta bere aita Peruri zerbairetan laguntzeko prestakizunak egin zituan.

Goizeko behar eta hotzaren barri emon eutsen, ea hiru egunerako ganadu jatekoak aurreztu zituela, bidean etorrela Prakerre eskekoa Bordazahar txabola ondoan besigu galanta aldean ebala tente egoteko baino beratuago aurkitu ebala eta agur esan eutsanean be erantzun orde, ahoan korapiloa baleu lez, halango zarata moduko bat egin eutsala, baina zer esan ebanik ulertu ez eta... Harek be Gabon ederra botako dau besigu guztiaren indarra amaitu orduko hotzak bertan gogortzen ez badau.

Ilunabarra hurreratu zanean, aita-semeak, Peru biak, sekulako arinen egin zituen kortako arazoak. Sukalderako argizaria isiotu behar zan eta sutako ilenti bat harturik puzka hasi zan ama Marixa argizaria isiotzeko.

—Neuk isiotuko dot, esan eban Perutxok. Eta Aita-ren egin ondoren, hanka biak zabal zabalik zituala, kaxa-



FJESSE-85

tik zoztxo bat atara, kaxearen azalean apropos latzagoa zan aldean txart txart egin eta xxuuuu! argitxoia isiotu zan zotz puntan. Argizariak be ondo hartu eban argia eta hondakina, garretan, sutara bota eban.

—Sekulo holangorik!, inoan Marixak.

—Bai ba, baserri etxea be nahikoa gogorra da ha eta kaletik be nahikoa hur bizi be bizi dira eta eskola handiagokoak ditugu hareek. Horrelako jenteari itzi egin behar jako.

—Eskola handikoak ez dakit ba! Ez dakit ba neuk nondik eukiko dituen eskola handiok. Martinek berak be ez dot uste eskola askorik zapalduko ebanai. Umetatik otsein eta morroi ibilia dozu ha eta beharra gogor egina, horixe bai. Eta Katalin bera be, zer ba? Ni baino zortzi-ren bat urte gazteagoa, umetatik gurasoak galdu eta ume-zurtza, amamarenean eta josten gau eta egun jarduna. Beharrea bien artean aurreztu zituenak alkaturik Katalinaren gurasoen etxea izan zana barriztau eta edertu egin dabe, patxada onekoak dirudie, baina eskola handirik ez dakit ba neuk nondik!

—Zuek androk eskolea eskolan bakarrik hartzen dala pentsetan dozue eta. Baina nondik edo handik badabe horreek guk ez dogunik. Orain be su kaxea bialdu deuskue makailaoagaz batera Gabon propinatzat.

—Eurak umerik ez daukien ezkerro gure Perutxo eurenenganatzea edo ez ete dabe nahi gero?

—Urtez ez dabilz oraindino berandu ondorengorik gura badabe. Horreek baino geroago hasiak be etxe bete ume ekarri ohi dabe eta.

—Eta hori euki ezkeru, gauero gauero ilenti eta txingarrak suteko hautsez estaltzen ibili beharrik be ez.

—Ama, hori eurak be egiten dabe. Eurak be gauero gauero ilentiaak eta txingarrak suteko hauspean izten ditue. Kaxako sua isiotzen be gaur ikusi dot nik lehenengoz Martin ugazaba. Katalinek ez dau ezer esan, baina ez dau horrelakorik aitatu. Hori egiten dabena badakit, baina ez deustie zergatik egiten dabenik esan.

—Zergaitik izango dok, ba? Bezperako su hondakinetatik su barria errezago isiotzeko.

—Marixa, ez eizu horrelakorik esan, badakizu holan ez dana eta.

—Bai, ipuinak! Sukarriaz eta ardagaiaz edo ardagaiaz eta makilea erabiliak sua isiotzea luzea eta aspergarria dalako asmatuak.

—Ez dino egia amak, Perutxo. Nik neure gurasoengandik eta hareek euren gurasoengandik eta lehenagokoak aurreragokoengandik ikasirik daukaguna hauxe dok: etxe-koak, lehenago teilape honetan bizi izandakoak, gau batzuetan tximinitik behera sartu eta euren etxealde zelan dabilen ikustera etorten dituk. Sutan txingar biziak aurkitu ezkeru, une horretan etxean bizi diranak bedeinkatu egiten jituak, baina sukaldera etortetakoan suteagian hautsa bai baina ilintirik agertzen ez badok, zigorrak eta zoritxararak opa izaten jautsiezak etxekoei.

—Bai eta noizbaiten egur mehegiak edo dagozalako amatau egiten bada?

—Orduan, goizean goiz, eguna ondo argitu aurretik, sua hurrengo auzotik ekarri behar izaten dok, aurretikoen bedeinkazinoak dituan suak, beharbada opa izan ja-kezan zoritxarrak aldendu daizan. Horixe dok egia, eta bestea, aurretikoei begiramen gitxi izatea.

—Hara, Peru, abadea izan bazina sermoilari garratza izango zinan zu.

—Ez dakit zer izango nintzan, baina gauzak zehatz esatea gustatuko litzakidan behintzat.

Amak intxaur saltsea egin eta makailaoa saltsan pres-tatzen zituan bitartean, arto garantzen eta jardunean ekin eutsien. Baegoan han isilik, baina beretzat zeozer eukiko ete eban amesetan ebilena, Santi, zortzi urteko mutikoa.

—Hiretzat, Santi, gozo bat erosi najuan lehengoan ka-lera joan nintzanean eta hiretzat be bai, Begoña. Karme-nentzat ez najonan ezer erosi, ea neu beste dan neska han-diarentzat ez jatazanan itxurazkoak begitandu gozoak eta.

—Heuk jango hituan ba, heuk bai, laister soldautzara be joan behar dokan horrek.

—Bat jan najonan, baina gu langoentzat ez ditun egi-nak. Gu naustuta gagozan orain horrelango gozokerietan ibilteko.

—Batu gauza guztiak, entzun zan ama Marixaren aho-tsa, eta prestau mahaia. Hauxe ganorea gure neskearena, gozokiak eskatzen mahaia prestatzen hasi be egin barik. Gaur gainera, betitik holantxe izan dalako, zamau eta guzti jantzi behar da mahaia.



Ez zan birritan esan beharrik izan, Jesus eta amen baten prestau eben nagusi bien artean, aitak artoa batu eta eskaratzera eroaten eban bitartean.

Afari gozoa gogoz jan, aspaldiko abesti zaharrak abestu, bertso modukoren batzuk bota eta orduak aurrera joiazala, aitak zigarro bat eskeini eutsan Perutxori. Eta su kaxatik beste zoztxo bat hartu, txart txart egin, zigarroak isiotu eta kea eriola, «hauxe be bada ba aurrerapena», esan eban Peruk. «Nork esango eta ilenti premina barik zigarroa be isiotu mahaian bertan. Hauxe be bada aurrerapena».